

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure negozioa aurrera eramateko hainbat enpresa azpikontratatu behar ditugu. Alde batetik tableta, teknologia eta mekanismoa ekoizteko enpresa batekin kontaktuan jarri behar gara eta haiekin akordio bat egingo dugu armairu bat apurtzen denean edo mekanismoan arazoren bat egoterakoan haiek beti konpondu ahal izateko.

Bestaldetik, tabletarekin erlazionatuta aplikazio bat sortzeko laguntza behar dugu eta norbait kontratatu behar dugu aplikazio hori sortzen laguntzeko, hala nola, teknikari bat.

Gainera garraioaz arduratuko den enpresaren bat azpikontratatu dugu horrela armairu guztiak perfektu helduko dira gure bezeroengana.

Eta, azkenik, armairua egiteko estruktura, beste enpresa bat kontratatu beharko genuke.

Orduan hori guztiaz aparte, administrazioaz, kudeaketaz eta diseinuari dagokionez, guk egingo genuke baina beti bezeroaren arabera (gustuak, beharrak...). Nahiz eta marketina nagusiki guk aurrera eraman, pertsona bat kontratatuko genuke sare sozialetarako, eta horren inguruko gauza guztiak egiteko. Horrez gain, bigarren eskuko arropa saltzen duen marka bat dugu, BONNTED izeneko. Hau, guk diseinatu eta kudeatuko dugu.